

## IRUNGO ALKATEAREN DEKALOGOIA UDAL ETIKAREN MESEDERAKO

Garai berri baten aurrean gaude. Garai berri bat bizitzarako eta jarduera publikorako. Eszenatoki ekonomiko, sozial eta politiko berri bat. Hiritarrek gardentasun, zorroztasun eta parte-hartze handiagoa eskatzen digute. Ildo horretan lan egin dugu, baina kaleak gehiago eskatzen du. Eta ezin dugu ahaztu gobernatzen dugun hiriko pertsonen alde lan egiten dugula. Ezin gara haiengandik urrunduko. Elkar ulertzeko baliabideak jarri nahi ditugu eta horixe egin behar dugu. Horregatik zain gaude, erne gaude; baina lasai gaude, Irunen dugulako konfiantza, baita guztiona den helburu horrekin adosteko aukeretan ere. Demokrazia da gizarteak aurrera egiteko daukagun tresna, eta lanean jarraitu behar dugu demokrazia indartsua, egiazkoa izan dadin, guztiok ordezkatuak izan gaitezen eta denok ordezkaturik sentitu gaitezen.

Badakit, Irungo alkatea naizen aldetik, irundarrek nire esku utzi dutena dela nire zeregina, eta haiei zor diet nire begirunea eta haiekin konprometitzen naiz nire lanean. Azken udal hauteskundeak jendaurrean bost konpromiso sinatu nituen eta gaur ekarri nahi ditut gogora: Berrikuntzarako eta ekonomia berrirako bultzada, bizi-kalitatea auzo guztietan, kulturaren eta hezkuntzaren hobekuntza, XXI. mendeko Irunentzat lan egitea, eta bakerako zein bizikidetzarako apustua garai berri baten itxaropenaren aurrean.

Hiritarrek egin dudako kontratua da, haien aurrean beste pauso bat emanez. Inguratzen gaituen hiri errealitateari erantzutea nahi nukeen urratsa da, 10 puntutan jokatzen dena. 2011-2015 agintaldiko Irungo Udalaren urratsak markatuko dituen balioak eta konpromisoak. Irunen alde lan egiteko gaude hemen. Hau da gure konpromisoa, gure egitekoa eta gure pasioa. Hau da Irungo alkate naizen honen dekalogoia udal etikaren mesederako:

- 1.- Ezagutzera emango ditut nire nomina eta nire ondasunak eta jarduera ekonomikoa udalaren web orriaren bitartez. Eta Udalbatzako gainerako kideak gauza bera egitera gonbidatuko ditut.
- 2.- Kontratazio Mahaia udal ordezkaritza daukaten Talde Politiko guztien udalkide guztientzat zabalik egongo da, udal kudeaketan erabateko gardentasuna eta kontrola egon dadin. Kontuen Batzordearen jarduera garrantzitsuagoa izateko modua egingo dugu.
- 3.- Bilerak egingo ditut aldizka, gutxienez hilean behin, Udal Talde Politiko guztiekin, Bozera maileen Batzordearen bidez, ekimenen eta proiektuen berri emateko eta erabaki eta adostasun instituzional hain irrikatua errazteko.
- 4.- Sustatuko dut osotasunean udalarenak diren Sozietate eta Enpresa Publikoetako Administrazio Kontseiluak eta Toki Fundazioetako Patronatuak gardentasun, soiltasun eta parte-hartze printzipioen arabera gobernatu daitezkeen; eta oposizioak haietan guztietan parte har dezan ere sustatuko dut.
- 5.- Proposatuko dut urtean eztabaida bat egitea Udalerriaren Egoerari buruz. Udal Gobernuko ordezkari kideei eskatuko diet konpromiso zehatza izan dezaten beren zereginekiko, eta seihilekorako helburu zehatzak betetzeko konpromisoa eskatuko diet. Helburu horiek eta haien betetze-maila hiritarren aurrean azalduko dira.
- 6.- 100.000 euroko kostua gainditzen duten zerbitzu eta obra-proiektu berri guztietan, iritziak jasotzeko sistema bat gaituko dut, webaren eta auzo-elkarteen bidez. Gainera, irundarrek eman duten iritziaren berri emango dut.
- 7.- Topaketa irekiak egingo ditut, urtean bi aldiz, hiriko auzoetako bizilagunekin, haien ideiak, kezkak eta iritziak entzun eta kontuan hartzeko xedez. Topaketa horiek beste kolektibo hiritar batzuekin ere egin daitezke, gai zehatzak lantzeko bilerak egitea eskatzen dutenean.
- 8.- Baliabide publikoak soiltasunez eta gardentasunez administratzen jarraituko dut. Ondasunen eta zerbitzuen kontsumoan eta Udalbatza osoaren gastuetan erabilera arduratsua mantenduz.
- 9.- Hiri barruan ahalik eta gizarte-kohesio eta oreka-maila handiena lortzeko ahaleginean sakonduko dut, zerbitzuz hiritarregana hurbilduz, bai erdigunearen eta auzoen artekoari dagokionez, bai gizonezkoen eta emakumezkoen artekoari dagokionez, bai umeen eta adinekoen artekoari dagokionez. Dagozkien eskubide, betebeharrak eta aukera guztiei buruzko informazioa emanaz eta udalerrira osoan berdintasunez banatuz.

10.- Giza eskubideak eta askatasun publikoak errespetatu eta errespetaraziko ditut, indarkeriaren deslegitimizazio sozial eta politikoaren sustapena bereziki azpimarratuz eta terrorismoaren biktimen eta edozein indarkeria politiko edo sozialen biktimen oroitzapena mantenduz. Era berean, errespetuzko eta adeitasunezko tonua erabiliko dut nire esku-hartzeetan, eta tratu egokia eta duina emango diot Udalbatzako edozein kideri eta enplegatu publikoei, eta orobat hiritar orori. Gu guztion, hautetsien, langile publikoen eta hiritarren arteko errespetua harremanetarako oinarritzko markoa izan dadin.

José Antonio Santano Clavero

Irungo alkatea

Irun, 2011ko ekainak 14